

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZKO ARAUDIA

GEOLOGIAKO Gradua

2021eko otsailaren 3ko Fakultateko Batzarrean onartua

AURKIBIDEA

1. Deskribapena eta helburuak
2. Gaitasun orokorrak eta ikaskuntza-emaitzak
3. Gradu Amaierako Laneko jarduerak
4. Gradu Amaierako Lan-motak
5. Gradu Amaierako Lanaren luzera eta egitura-mota
6. Antolamenduaren alderdi formalak
7. Gradu Amaierako Lanaren funtsezko faseak

1. DESKRIBAPENA ETA HELBURUAK

Gradu Amaierako Lanean (GRAL), jatorrizko proiektu, memoria edo azterlan bat gauzatu behar du ikasle bakoitzak banakako jardunean, zuzendari baten edo gehiagoren gainbegiratze-lanarekin. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Graduko ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak. Geologiako Gradu Amaierako Lanak 12 ECTS kreditu ditu.

Geologiako Sail Gradu Amaierako Lanen hainbat proposamen eskaini beharko ditu. Horien guztizko gutxieneko kopurua, hain zuzen, hurrengo ikasturtean berori gauzatuko duten ikasleen guztizko kopuruaren parekoa izango da.

Nola memoria hala Gradu Amaierako Lana EAeko hizkuntzako ofizialetako batean (gaztelania edo euskara), eta egindako eskaintzaren arabera, ingelesez, frantsesez edo alemanez egin, aurkeztu eta defendatu daitezke; betiere, hizkuntza horietan gaitutako epaimahaiak ezar badaitezke.

Gradu Amaierako Lanaren zati bat edo osoa UPV/EHU ez den beste entitate edo erakunde batzuetan egin daiteke.

Gradu Amaierako Lana Jabetza Intelektualeko Legeak babesten du. Hortaz, egin duenari dagokio jabetza intelektualaren araberrako eskubideen titulartasuna, non eta ikasleak Gradu Amaierako Lana esleitzerakoan onartu zuen dokumentuan besterik zehaztu ez zuen; betiere, indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen moduen eta baldintzen arabera.

Gradu Amaierako Lanaren matrikula dagokion ikasturtean zehar egin beharko da, Zientzia eta Teknologia Fakultateko (ZTFN FCT) Ikastegiko Batzarrean onartutako egutegiak xedatutakoarekin bat eginda eta ikasleak ikasketan planeko gainerako irakasgai guztiak gaindituta baditu; zehazki, dagozkion tasak ordainduta egingo da matrikula.

2. GAITASUN OROKORRAK

Gradu Amaierako Lana, zehazki, tituluarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira, eta oro har, ikaslearen ikasketa-arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak zientziarekin edo teknologiarekin lotutako gai garrantzitsuei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan, eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezzen. Prestakuntza-jarduerak zabalak izan daitezke eta Graduako titulu osoan eskuratutako gaitasunak garatzeko eta aplikatzeko izango dira.

Gradu Amaierako Lanak, beraz, tituluari lotutako honako gaitasun hauek aplikatzera bideratuta egon beharko du:

- Analisi eta sintesirako gaitasuna.
- Arazoak ebazteko gaitasuna.
- Informazioa bilatzeko eta kudeatzeko gaitasuna.
- Ezagutzak praktikan aplikatzeko gaitasuna.
- Ikaskuntza eta lan autonomo eta sormenezkoa.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Denbora antolatzeko, plangintza egiteko eta kudeatzeko gaitasuna.
- Esleitutako zereginetan erabakimena, jarraikitasuna eta erantzukizuna.
- Ama-hizkuntzan ahoz eta idatziz komunikatzea.
- Kalitateari eta ondo egindako lanari begirako motibazioa.
- Geologiarekin lotutako teoriak, paradigmak, kontzeptuak eta printzipioak ezagutzea eta erabiltzea.
- Geologiarekin lotutako kontzeptuak, izendegia, hitzarmenak eta unitateak behar bezala erabiltzea.
- Prozesu geologikoen espazio- eta denbora-ikuspegia eskuratzea, eta baita planetan eragiten dituzten ondorioak ere (mineralak, arroak, fosilak, egiturak, erliebeak...).

-Gaur egungo ingurumen-prozesuak ezagutzea eta ulertzea eta horiekin lotutako arriskuak ezagutzea; baita Lurreko baliabideak ustiatzeko eta gordetzeko premiaren berri jasotzea ere.

-Landa-lana eta laborategiko lana modu arduratsu eta seguruan gauzatzea.

-Gainazaleko datuak eta datu geofisikoak abiapuntu hartuta, lurpeko ereduak osatzea.

-Tresna eta teknika egokiak baliatuta, datuak eskuratzea, prozesatzea, aztertzea eta interpretatzea eta landa zein laborategiko behaketak egitea, eta behar den bezala, emaitzak dokumentatzea, txostenetan edo landa-koadernoetan.

-Arazo geologiko bat ebazteko estrategia bat definitu eta aplikatzea, eta dagokion txostena osatzea.

-Entzule espezializatuari edo ez-espezializatuari informazio geologikoa igortzea, nola idatziz, hala ahoz.

-Ezagutza geologikoak aplikatzea, baliabide naturalak aztertzeko, ebaluatzeko, ateratzeko eta kudeatzeko; betiere, gizarte-eskaeraren arabera eta modu iraunkorrean.

-Prozesu eta material geologikoen ezagutza erabiltzea legeak geologoek jardueratzat jotako lanbide-esparruetan.

3. GRADU AMAIERAKO LANEKO JARDUERAK

Gradu Amaierako Lanak honako jarduera hauek barne hartuko ditu:

- 1) Banakako tutoretzak. Ikasleak, gutxienez, 6 tutoretza-ordutan parte hartu beharko du.
- 2) Ikasleak lan autonomoa egingo du, bere zuzendariak gidatuta; zehazki, Gradu Amaierako Lana garatzeko, entregatzeko, aurkezteko eta defendatzeko faseetan.
- 3) Ikasturtean zehar eskaini daitezkeen eta Gradu Amaierako Lana osatzeko beharrezko metodologia-gidalerroei buruzkoak diren orientazio-mintegiak, prestakuntza gehigarriko jarduerak (esaterako, Unibertsitateko Liburutegiak eskainitako bilaketa bibliografikoari buruzko ikastaroak), zientzia-testuak idazteari buruzko ikastaroak, ahozko aurkezpenak egiteko teknikak, eta Geologiako Graduako Ikasketa Batzordeak eta lanaren zuzendariak beharrezkotzat jotako beste zeinahi.

4. GRADU AMAIERAKO LAN-MOTAK

Mota hauetako Gradu Amaierako Lanak egon daitezke:

- a) teorikoa, bibliografia-izaerakoa.
- b) esperimentalak, ikerketa geologikoko lana izango duena (ahal dela, orokorra).
- c) irakaskuntzakoa, Geologiaren irakaskuntzari begirakoa.
- d) Graduako Ikasketa Batzordeak (GIB) onartu beharreko beste batzuk.

5. GRADU AMAIERAKO LANAREN LUZERA ETA EGITURA-MOTA

1) Luzera

Gradu Amaierako Lanak 25 eta 30 orrialde arteko luzera izango du (13.000 hitz inguru), azala barne, Gradu Amaierako Lanak ezaugarri bereziak izateagatik aldagai horrek zentzurik ez baldin badu salbu. Gainera, beharrezko beste eranskin-elementu batzuk ere izan ditzake; Salbuespen moduan, bibliografia-izaerako memoriak 40 orrialdera arte luza daitezke.

2) Egitura-mota

Gradu Amaierako Lanak honako atal hauek barne hartu beharko ditu, gutxienez: azala, aurkibidea, sarrera eta helburuak, garapena, ondorioak eta bibliografia. Aldi berean, Geologia Graduko GALaren Estilo Gidaliburuan proposatutako estilo-arauak bete beharko ditu memoria erredaktatzean.

i) Azala

Gradu Amaierako Lanaren azalak Estilo Gidaliburuko (Geologia) I. Eranskinean xedatutako ereduari jarraitu beharko dio.

ii) Aurkibidea

Aurkibidean, bestalde, lanaren atal guztiak eta horietako bakoitza zer orrialdetan hasten den zehaztu beharko da.

iii) Sarrera eta helburuak

Sarrera eta helburuetan, berriz, honako hauek azaldu behar dira:

- Gaiak gaur egun duen egoera.
- Helburuak; betiere, arloa, irismena eta mugak zehaztuta.

iv) Garapena (ataletan/azpiataletan banatuta)

Gradu Amaierako Lana, hain zuzen, ataletan eta azpiataletan egituratutako gaien bidez garatuko da, gaiaren garapenak bide ematen duen banaketaren arabera. Atalek osatzen dute lanaren mamia, eta horietan garatzen da aukeratutako gaia. Atal-kopurua gaiaren arabera aldatzen joango da. Bestalde, atalak hainbat azpiataletan banatu ahal izango dira. Nola atalek hala

azpiatalek izenburu argia eta dagokien kapituluaren edo atalaren adierazgarria eduki beharko dute. Atalen luzera edo horietako bakoitzak eduki behar duen orri-kopurua bat zein beste izan liteke; nolana ere, batzuen eta besteen artean orekari eustea gomendatzen da.

v) Ondorioak

Gradu Amaierako Lanean lortutako emaitzen azalpena dira ondorioak. Lanaren zati honetan, ikasleak lortutako emaitzak aurkeztu beharko ditu, horien irismena edo eragina aintzat hartu, eta hala badagokio, ebazteke geratutako eta gerora azterlan sakonagoa merezi lezaketan arazo edo gaiak azaldu beharko ditu.

vi) Bibliografia

Kontsultatutako lanen eta lanean berariaz aipatutako lanen zerrenda da, hain zuzen, bibliografia. Honako hauek sartuko dira, besteak beste: liburuak, liburu kapituluak, aldizkariak, artikulak, eta tesiak. Horixe izango da memoriaren azken atala, eta Geologiako GALaren Estilo Gidaliburuan oinarritutako forma-arauak jarraituta egin beharko dira aipamenak. Kongresuen laburpenak, argitaratu gabeko lanak edota web orriak erabili behar izatekotan, testuan aipatuko dira baina ez dira bibliografian gehituko.

vii) Eranskinak

Eranskinak izan daitezke GALaren memoria betetzeko erabili daitezkeen baina memoriaren ulermen zientifiko/teknikorako ezinbestekoak ez diren taulak, mapak, zerrendak, fitxa deskriptiboak eta abarrak. Gehienez jota 20 orrialde izan daitezke eta aurrez memoriari ezarritako gehienezko orrialde kopuruari batuko zaizkie. Orrialde horiek memoriaren orrialdeei jarraiki zenbakituko dira. Eranskin oro agertu beharko da GALaren memorian aipaturik (adib. ikusi I. Eranskina).

6. ANTOLAMENDUAREN ALDERDI FORMALAK

1) Gradu Amaierako Lanaren koordinatzailea

Ikastegiko Batzarrak onartuta, Gradu Amaierako Lanaren koordinatzailea izendatu beharko da; haren eginkizuna, zehazki, Gradu Amaierako Lanaren araudian xedatutako izapideak eta prozedurak kudeatzea izango da.

Honako hauek dira, hain zuzen, Gradu Amaierako Lanaren koordinatzailearen eginkizunak:

- i)** Gradu Amaierako Lanaren Ikasketen Gidaliburua osatzea eta eguneratzea
- ii)** Ikasleei Gradu Amaierako Lanaren izaeraren eta ezaugarrien berri ematea
- iii)** Gradu Amaierako Lanerako gaien urteroko eskaintza koordinatzea
- iv)** Graduko Ikasketa Batzordearekin (GIB) batera, Gradu Amaierako Lanerako gaien urteroko eskaintza baliozkotzea
- v)** Ikasleei Gradu Amaierako Lanak esleitzea, ZTF-FCTko Gradu Amaierako Lanari buruzko araudiaren arabera
- vi)** Graduko Ikasketa Batzordearekin (GIB) batera, Gradu Amaierako Lana Ebaluatzeko Epaimahaiak izendatzea eta Ikastegiko Idazkaritzari jakinaraztea
- vii)** Lanak garatzean sor daitezkeen gertakari akademikoak konpontzea

2) Gradu Amaierako Lanaren zuzendaria

Graduan irakaskuntza duen Geologiako Saileko irakasleek edo Graduan ematen duen ZTFN FCTra atxikitako irakasleek zuzenduko dute Gradu Amaierako Lana. Irakaslea arduratuko da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzeaz, lanaren garapenean hura orientatzeaz eta ezarritako helburuak beteko direla bermatzeaz, baita jarraipena egin eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idazteaz ere. Gradu Amaierako Lanaren zuzendariak osatu behar duen txostenaren formatua, hain zuzen, Zuzendariaren Txostena izeneko Eranskinean dago jasota. Txostena GAUREn bitartez bidaliko da (GAUR/ Ikasketa Amaierako Proiektuak N Gradu Amaierako Lana/Proiektuen Proposamena Berrikustea, ikusi Zuzendarietzako GAUREn Gidaliburua). Ikasleak matrikula egin eta Gradu Amaierako Lanaren defentsa data eskatu ahal izango du, nahiz

eta txostena ez izan aldekoa. Gradu Amaierako Lana pertsona batek baino gehiagok zuzen dezakete.

UPV/EHUr lotutako doktoreek ere zuzendu ahal izango dituzte Gradu Amaierako Lanak; betiere, Graduan irakaskuntza duen Geologiako Saileko kidea den edo ZTFN FCTra atxikita dagoen zuzendarikide bat egonez gero.

Ikasleak UPV/EHU ez den bestelako instituzio edo erakunderen batean gauzatzen badu Gradu Amaierako Lanaren zati bat edo osoa, unibertsitatez kanpoko langileek ere zuzendarikidetzan jardun ahal izango dute Gradu Amaierako Lanean. Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da atal honetan aurretiaz aipatutako baldintza guztiak betetzen dituen zuzendarikide bat egotea.

Gradu Amaierako Lanaren zuzendariak osatu beharreko txostena bakarra izango da, eta zuzendari batek baino gehiagok egiten badute Gradu Amaierako Lan baten zuzendarikidetzalana, txostena adostutakoa izango da.

Zuzendutako lan bakoitzak 0,5 kreditu izango ditu, eta irakasle bakoitzari, gehienez ere, 6 kreditu aitortuko zaizkio urtean.

3) Gradu Amaierako Lanaren Ebaluazio epaimahaia

Geologiako Sailak bermatu beharko dute eskainitako Gradu Amaierako Lanen defentsarako beharrezkoak diren epaimahaiak prestatzeaz. EAEko bi hizkuntza ofizialetako epaimahaiak egon daitezen bermatu beharko da, eta ahal den neurrian, baita Batzarrean onartutako lkastegiaren araudian xedatutakoa betetzen duen beste zeinahi hizkuntzatakoa ere.

Epaimahai bakoitza hiru kidek eta ordezkoi batek osatuko dute; horiek guztiak ZTFN FCTko irakasleak izango dira. Lanaren zuzendariak eta zuzendarikideak ezingo dute parte hartu epaimahaiaren kide bezala.

Epaimahai bakoitzean, lehendakari eta idazkari bana egongo da. Irakaskuntza-kategoriaren eta antzintasunaren irizpidea erabiliko da lehendakaria eta idazkaria hautatzeko; horiek kargu horien arabera jardungo dute jarduera guztietan.

Gradu Amaierako Lana ebaluatzeko epaimahaiak Ebaluazio Irizpideak izeneko eranskinetan jasotako irizpideei jarraitu beharko diete. Epaimahaiakide bakoitzak bere kasa osatu beharko ditu Memoriari eta Defentsari dagozkien ebaluazio-txostenak. Azken kasuak lifikazioa, haiekin zuzen,

epaimahai ebaluatzaileko 3 kideek emandako txostenen batez besteko aritmetikoa eginda lortuko da.

Epaimahaiaren idazkariak nota GAUREn sartu eta berrikuspenerako epea finkatuko du. Berrikuspenerako epea agortuta, nota espdientera pasatu eta idazkaritzan akta eskatuko da epaimahaiko kide guztiek sina dezaten. Beti ere akta sinatuta egon beharko da GRALaren deialdi bakoitzeko akten itxiera data baino arinago.

7. GRADU AMAIERAKO LANAREN FUNTSEZKO FASEAK

1) Izena ematea

Uztailaren hirugarren astean, Ikastegiak Gradu Amaierako Lanean izena emateko epea irekiko du. Irailan Gradu Amaierako Lanean izena emateko baldintzak betetzen dituzten ikasleek (gradua osatzeko falta dituzten ECTS kredituak 75 edo gutxiago izatea, Gradu Amaierako Lana barne) ztf.graduamaierakolana@ehu.eus helbidera bidali beharko dute *Izena Emateko Inprimakia*. Izena ematean, ikasleek hitzartuta eduki dezakete, edo ez, lanen bat; eta halaxe adierazi beharko dute izena emateko dokumentuan. Aldi berean, Gradu Amaierako Lana gauzatzeko aukeratu duten hizkuntza adierazi beharko dute, eta baita truke akademikoko programaren baitan gauzatu duten ala ez ere. Aurreko ikasturtetik lana esleituta duten ikasleek ere IZENA EMATEKO ERANSKINA beteta bidali beharko dute. Eranskinean adierazi behar dute eslietutako lanarekin jarraitzen duten ala ez.

2) Izena ematea eta gaia esleitzea

Irailko lehenengo astean, irakasleek Gradu Amaierako Lanen proposamenak txerta ditzaten epea irekiko du Ikastegiak; GAUREn duten profilaren bitartez egin beharko dute (GAUR/Ikasketa Amaierako Proiektuak - Gradu Amaierako Lana, ikusi Zuzendarientzako GAUREn Gidaliburua). Irakasleak dagoeneko aukeratura badauka eskainitako proiekturako ikasleren bat, egindako eskaintzan halaxe adierazi beharko du.

Irailko bigarren astean, proposatutako lan guztiak baliozkotuko ditu Gradu Amaierako Lanaren koordinatzaileak.

Irailko hirugarren astean, Gradu Amaierako Lanean izena emateko baldintza guztiak betetzen dituzten ikasleek GAUREn duten profilaren bitartez (GAUR/Ikasketa Amaierako Proiektuak - Gradu Amaierako Lana, ikusi Ikasleentzako GAUREn Gidaliburua) eman beharko dute izena; lana hitzartuta ez daukatenean, hain zuzen, euren titulurako eskainitako zerrendako hiru lan aukeratu beharko dituzte, eta lehentasunen arabera idatzi.

Irailko laugarren astean, Gradu Amaierako Lanaren koordinatzaileak, Gradu Ikasketa Batzordearekin batera, ikasle bakoitzari lan bat esleituko dio; betiere, ikaslearen ikasketa-espeditatea eta hark adierazitako lehentasun-ordena kontuan izanda.

Gradu Amaierako Lanaren zatiren bat edo osorik UPV/EHU ez beste instituzio edo erakunderen batean edo truke akademikoko programaren esparruan gauzatzen duten ikasleek zuzendaria hautatuko dute, Graduan irakaskuntza duen Geologiako Saileko irakasleen edo gradua ematen duen ZTFN FCTra atxikitako irakasleen artean. Hala egin ezean, Gradu Amaierako Lanaren koordinatzaileak esleituko dio bat.

Gradu Amaierako Lanaren zati bat edo osorik UPV/EHU ez beste instituzio edo erakunderen batean gauzatzen bada, beharrezko hitzarmen guztiak sinatuko dira, UPV/EHUK xedatutako ereduaren arabera.

3) Matrikulazioa eta defentsa

Matrikula-baldintza guztiak bete ostean, ikasleak matrikula egin ahal izango du Gradu Amaierako Lanean, GAUREn duen profilaren bitartez (GAUR/Matrikula/Ikasketa Amaierako Proiektua - Gradu Amaierako Lana, ikusi Ikasleentzako GAUREn Gidaliburua); betiere, Ikastegiko Batzarrak onartutako epeetan.

Matrikula egin ondoren eta matrikula-epearen barnean, ikasleak defentsarako data eta hizkuntza eskatu beharko ditu GAUREn duen profilaren bitartez (GAUR/Ikasketa Amaierako Proiektuak - Gradu Amaierako Lana/Esleipenak, ikusi Ikasleentzako GAUREn Gidaliburua), eta zuzendariak txostena bidali beharko dio (ikusituz Zuzendariaren Txostenaren ereduak) GAUREn bitartez (GAUR/Ikasketa Amaierako Proiektuak - Gradu Amaierako Lana/Proiektuen Proposamena Berrikustea, ikusi Zuzendariarentzako GAUREn Gidaliburua). Gradu Amaierako Lanaren zuzendariak osatu beharreko txostena bakarria izango da, eta zuzendari batek baino gehiagok egiten badute Gradu Amaierako Lan baten zuzendarikidetzak, txostena adostutakoa izango da.

Deialdian adierazitako datetan, bestalde, Gradu Amaierako Lanaren dokumentu idatziaren paperezko kopia bat utzi beharko du ikasleak Ikastegiko Idazkaritzan, eta haren beste kopia bat, PDF formatuan, ADDI plataformara igo (<https://interno.addi.ehu.es/>, ikusi ADDI Gidaliburua). Idazkaritzan entregatzen den lanarekin batera UPV/EHUko plataforma digitalean (ADDIn) lana argitaratzeko baimena entregatuko da zuzendariak eta ikasleak sinatuta.

Matrikula-epea amaitu ondoren, Gradu Amaierako Lanaren koordinatzaileak, Gradu Ikasketa Batzordearekin batera, deialdi bakoitzeko Gradu Amaierako Lanak ebaluatuko dituen/dituzten epaimahaia(k) izendatuko du/ditu, eta halaxe jakinarazi beharko dio Ikastegiko Idazkaritzari, hark

GAUREn txerta ditzan. Behin epaimahaiak eta Gradu Amaierako Lanaren defentsa gauzatzeko tokia, data eta ordua erabaki ostean, Gradu Amaierako Lanaren koordinatzaileak guztiaren berri eman beharko die zerikusia duten ikasle zein irakasleei, behar besteko aurrerapenarekin, GAUREn duen profilaren bitartez (GAUR/Ikasketa Amaierako Proiektuak - Gradu Amaierako Lana/Proiektuak/Defentsarako data eta tokia esleitzea, ikusi Koordinatzaileentzako GAUREn Gidaliburua).

Gradu Amaierako Lanak ebaluatu behar dituen epaimahaiak, bestalde, ADDI plataforma bidez jasoko du ikaslearen Gradu Amaierako Lanari buruzko memoria.

Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du Gradu Amaierako Lana. Halaber, defentsa publikoa izango da eta ikasleak ebaluazio-proba grabatzea eskatzeko eskubidea izango du. Defentsa eta memoria hizkuntza berean egingo dira.

Ikasle bakoitzak 15 minututik 20ra bitarte izango ditu defentsa egiteko; defentsa horretan, Gradu Amaierako Lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak aurkeztu beharko ditu. Egokitzat joz gero, Ikastegiko ikus-entzunezko baliabideak eta bitarteko informatikoak erabili ahal izango ditu. Ondoren, gehienez 15 minutuko tartean, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galderei, argibideei, oharrei eta iradokizunei erantzungo die.

Gradu Amaierako Lana truke akademikoko programaren baitan gauzatzen duten ikasleen kasuan, truke akademikoaren hitzarmena aplikatuko zaie (ikusitu Gradu Amaierako Lanari buruzko araudia, truke akademikoko programetan).

4) Ebaluazioa eta kalifikazioa

Gradu Amaierako Lanean bi atal, memoria eta defentsa ebaluatuko dira, haztapen honekin:

- Aurkeztutako memoria: % 65
- Defentsa: % 35

Aurreko ataletako bakoitzeko ebaluazio-irizpideak, epaimahaiak jarraituko dituenak, dagozkien eranskinetan daude jasota.

Kalifikazioa zenbakizko eskalan emango da, dezimal bakarrarekin, eta kalifikazio kualitatiboa ere adieraziko da:

- 0-4,9: Ez gaitua
- 5,0-6,9: Gaitua
- 7,0-8,9: Oso ongi
- 9.0-10: Baita

Ikasleen batek deialdi batean defentsa-eskubideari uko egin ez gero, “aurkeztu gabe” adieraziko da.

Gradu Amaierako Lana truke akademikoko programen esparruan gauzatzen duten ikasleen kasuan, truke akademikoaren esparruko Gradu Amaierako Lanari buruzko ERANSKINEAN jasotako erabakiaren arabera egingo da ebaluazioa.

«Ohorezko matrikula» eman ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo hobea lortu duten ikasleei. Dena den, emango diren ohorezko matrikulen kopurua ez da izango ikasturteko deialdi bakoitzerako gai horretan matrikulatutako ikasleen % 5 baino handiagoa.

Ikasleak lana gaitzen ez badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio epaimahaiak, ebaluazioa berriro egingo.

Gradu Amaierako Lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko ebaluazio-araudiari jarraiki egingo dira; dena den, kasu honetan epaimahai bat dagoenez, ebaluazioaren lehen berrikuspena epaimahaiak berak egingo du. Ondoren, ZTF-FCTko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal zaio Unibertsitateko errektoreari.

Gradu Amaierako Lanak ZTF-FCTko Idazkaritzan gordeta geratuko dira, harik eta ikasleak defentsa egin eta hurrengo ikasturtea amaitu arte. Epe hori igarotakoan, hala eskatzen duten ikasleei itzuli egingo dizkiete dokumentuak. Gordetzeko epea amaitu eta ikasleak ez badu itzultzeko eskatzen, euskarri fisikoak suntsitu egingo dira.

Nolanahi ere, Gradu Amaierako Lanen kalifikazioak urriaren 31 baino lehen agertu beharko du matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.

5) Isilpekotasuna

Defentsarako eskaera egiten denean, ikasleak edo zuzendariak eska dezakete Gradu Amaierako Lanaren edukia isilpekoa izatea. Isilpekotasun-eskaerarekin batera, justifikazioa eta Gradu Amaierako Lanaren zuzendariaren edo ikaslearen sinadura aurkeztu beharko dira (ikusisilpekotasun-inprimakia).

Isilpeko Gradu Amaierako Lanak behar bezala identifikatuko dira ZTF-FCTko Idazkaritzan. Epaimahaikideek isilpekotasun-dokumentu bat sinatu beharko dute (inprimaki ofizialaren arabera), lanaren kopia jaso aurretik. Behin defentsa egin ostean, ebaluazio-epaimahaiko kideek ikasleari itzuliko dizkiote Gradu Amaierako Lanaren aleak. Idazkaritzan utzitako kopia ez zaio inori emango.

Gradu Amaierako Lanaren edukia isilpekoa denean, defentsa-jardunaldira joaten diren pertsona guztiei eska diezaiekete isilpekotasun-dokumentu bat sinatzeko (inprimaki ofizialaren arabera).



GEOLOGIAKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA ZUZENDARIAREN TXOSTENA

Zuzendariaren izena:				
Zuzendarikidearen izena:				
Enpresaren izena:				
Ikaslearen izena:				
Lanaren izenburua:				
Deialdia:	<input type="checkbox"/> Otsaila	<input type="checkbox"/> Uztaila	<input type="checkbox"/> Iraila	<input type="checkbox"/> Ohiz kanpoko

Gradu Amaierako Lanari buruzko araudiaren arabera, zuzendariak txostena bidali beharko du, baina ez da loteslea izango ikasleak lortutako azken notari begira.

Itena	Erantzukizuna		Ikaskuntzaren aurrerapena	Ekimena eta autonomia	Gauzatutako memoria
	GRALari eskainitakoa	Antolatutako saioretako parte-hartzea			
Balioespena					
Oharrak					
Balioespen orokorra	<input type="checkbox"/> Gutxiegi	<input type="checkbox"/> Ongi	<input type="checkbox"/> Oso ongi		



GEOLOGIAKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA ZUZENDARIAREN TXOSTENA

ZUZENDARIAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

		Gutxiegia	Ongi	Oso ongi	Kalif.
Erantzukizuna	- GRALari eskainitakoa	Ez da nahikoa izan lanean proposatutako helburuak lortzeko	Nahikoa izan da lanean proposatutako helburuak lortzeko	Ezin hobea izan da lanean proposatutako helburuak lortzeko	
	- Antolatutako saioetako parte-hartzea	Oro har, ez da azaldu zuzendariarekin hitzartutako bileretara	Oro har, azaldu da zuzendariarekin hitzartutako bileretara		
Ikaskuntzaren aurrerapena		Lanari buruz dituen ezagutzek ez dute behar bezalako aurrerapenik izan	Lanari buruz dituen ezagutzek behar bezalako aurrerapena izan dute	Gaiari buruz dituen ezagutzak hasieran baino sakonagoak eta konplexuagoak dira	
Ekimena eta autonomia		Oro har, zuzendariaren laguntzarekin egin du lan, eta ez du ekimen eta autonomia handirik erakutsi informazioa bilatzeko eta zuzendariak proposatutakotik haratagoko ideiak proposatzeko.	Tarteka, zuzendariaren laguntzarekin egin du lan, baina ekimen eta autonomia nahikoarekin jardun du.	Modu autonomoan egin du lan, informazioa bilatzeko eta zuzendariak proposatutakotik haratagoko ideiak proposatzeko ekimen handiarekin.	
Irakaslearen esku-hartzea memoria osatzeko zereginen		Ikasleak irakaslearen esku-hartze handia behar izan du memoria idazteko.	Ikasleak irakaslearen esku-hartze txikia behar izan du memoria idazteko.	Ikasleak ez du irakaslearen esku-hartzerik behar izan memoria idazteko.	



GEOLOGIAKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA ZUZENDARIAREN TXOSTENA

ZUZENDARIAREN ADIERAZLEAK, Ekimena eta Autonomia Pertsonala ATALA EBALUATU AHAL IZATEKO

ADIERAZLEA	BATERE ADOS EZ	NEURRI BATEAN, ADOS	ERABAT ADOS
Informazioa bilatzeko, irakurtzeko eta ulertzeko ekimena erakutsi du.			
Gradu Amaierako Lana gauzatzeko lan-egitasmo bat proposatzean ekimena erakutsi du (lehentasunak adierazi ditu).			
Helburuak eta xedeak finkatu ditu.			
Helburua lortzeko modua fasetan antolatu du (lan-egitasmoa).			
Bere kasa proposatu du dokumentu idatziaren egitura.			
Bere Gradu Amaierako Lanarekin lotutako arazoak hauteman ditu eta erabakiak hartu ditu (ekimena) arazo horiek konpontzeko aukerak bilatzeko.			
Gradu Amaierako Lanean izan dituen arazoak ebazteko, proposamen original eta ezohikoak egin ditu.			
Bere Gradu Amaierako Lanarekin lotutako alderdi edo arazoei buruz zuzendariarekin izandako elkarrizketa edo eztabaidetan, berezko jarrera erakutsi du eta jarrera hori argudioekin defendatu du.			
Lan-egitasmoari edo zereginari begira, erantzukizunez eta modu koherentean jardun du.			
Erantzukizunez eta koherentzia handiarekin gauzatu ditu lan-egitasmoko zereginak.			
Jarraitutasuna erakutsi du bere zereginak gauzatzeko eta helburuak betetzeko.			
Inolako inhibiziorik gabe jardun du.			
Egoera arazotsuetan, modu malguan jokatu du; beti elkarrizketara irekia. Kritikei begira izan duen erantzuna honelakoa izan da:			
Ikasketa-gaiari buruzko ondorioak identifikatu ditu.			
Prozesuaren zein emaitzaren autoebaluazioa egin du.			
Prozesuan eta emaitzetan, akatsak eta ondo egindakoak onartu ditu.			
Hizkuntza positiboa erabili du bere buruaz hitz egiteko (ekimena duen pertsonak egin ohi duen legez).			
Asko gozatzen du lanarekin/gaiarekin, eta bere ezagutzak handitzeko interesa eta jakin-mina adierazten ditu.			



ZTF-FCT
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

GEOLOGIAKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA MEMORIAREN EBALUAZIOA



Epaimahaiko kide guztiek osatu beharreko ebaluazio-txostena.

Zuzendariaren izena:	Zuzendarikidearen izena:	Enpresaren izena:		
Ikaslearen izena:				
Lanaren izenburua:				
Ebaluazio Batzordearen zenbakia:				
Deialdia:	<input type="checkbox"/> Otsaila	<input type="checkbox"/> Uztaila	<input type="checkbox"/> Iraila	<input type="checkbox"/> Ohiz kanpoko

Sinadura:

Eguna:

Gradu Amaierako Lanaren Ikasketa Gidaliburuaren arabera, aurkeztutako memoriak azken notaren % 65eko balioa izango du. Notak, hain zuzen, bi atal izango ditu: Formatua eta Komunikazio Idatzia (% 25) eta Kontzeptuzko edukia (% 40).



GEOLOGIAKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA MEMORIAREN EBALUAZIOA

I. Formatua eta Komunikazio Idatzia (% 25)

		1-4	4-7	7-10	Nota
Argitasuna eta zuzentasuna hizkuntzaren erabileran (% 7.5)		Adierazpen-maila ez oso akademikoa; lagunarteko hizkera. Argitasun-gabezia: esaldi ulergaitzak. Akats sintaktiko eta ortografiko larriak.	Adierazpen-maila zuzena dauka, nahiz eta ez den akademikoa. Argiago hitz egin lezake. Akats sintaktiko eta ortografiko larri gutxi batzuk.	Hizkuntza akademikoa darabil. Ideiak igortzean, argitasuna eta eraginkortasuna dira nagusi. Ez du akats sintaktiko eta ortografikorik.	
Memoriaren antolamendua (% 7.5)	Antolamendua	Gauzatutako lanarentzat egitura desegokia. Informazioa ez dago behar bezala kokatuta.	Nahiko ongi antolatutako testua, baina hobetu liteke.	Ondo antolatutako testua.	
	Erreferentzia bibliografikoak	GRAL idazteko gidaliburuan finkatutako argibideen arabera, erreferentzien formatu desegokia. Erreferentzia-akatsak testuan.	GRAL idazteko gidaliburuan finkatutako argibideen arabera, erreferentzien formatu egokia. Baina erreferentzia-akats batzuk testuan.	GRAL idazteko gidaliburuan finkatutako argibideen arabera, erreferentzien formatu egokia, eta batere erreferentzia-akatsik gabea.	
Elementu grafikoak, taulak eta ekuazioak (% 7.5)		Irudia, taula edo/eta ekuazio desegokiak: GRAL idazteko gidaliburuko aholkuen arabera, akatsak dituzte, ez dute idazkunik edo berori ez da behar bezain garbia, ez daude zenbakituta eta informazioa teilakatuta ageri da. Testuko erreferentzia okerra da.	Irudi, taula edo/eta ekuazio egokiak, nahiz eta akats txiki batzuk izan (GRAL idazteko gidaliburuko aholkuen arabera), edo hobetu daitezke. Hainbat akats txiki erreferentzietan.	Irudi, taula eta ekuazio egokiak, akatsik gabeak eta testuan behar bezalako erreferentzia dutenak, GRAL idazteko gidaliburuko aholkuen arabera.	
Memoriaren argitalpena (% 2.5)		Ez dator bat graduko gidaliburuan xedatutako arauekin.	Arauekin bat dator, baina argitalpen-akats batzuk ditu.	GRAL idazteko gidaliburuan xedatutako arauetara erabat egokitzen zaie.	



GEOLOGIAKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA MEMORIAREN EBALUAZIOA

II. Kontzeptuzko edukia (% 40)

		1-4	4-7	7-10	Nota
Lanaren kalitatea (% 24)	Helburuak (% 8)	Ez daude xedatuta lanaren helburuak. Ez daude behar bezala edo argi eta garbi deskribatuta. Ez dira koherenteak memoriaren gainerako edukiekin.	Finkatuta daude, baina horien deskribapena ez da memoriaren edukiarekin erabat koherentea.	Argi eta garbi finkatuta daude, eta koherenteak dira memoriaren edukiarekin.	
	Metodologia (% 8)	Erabilitako metodologia ez da egokia proposatutako helburuak betetzeko. Horien deskribapena ez da nahikoa.	Metodologia egokia da, eta berorren deskribapena ere onargarria, nahiz eta hobetu litekeen.	Metodologia egokia da, baita deskribapena ere.	
	Emaitzak (% 8)	Lortutako emaitzak ez dira koherenteak erabilitako metodologiarekin, ezta adierazitako helburuekin ere. Lortutako emaitzen deskribapena edo/eta osaera nahasgarria edo/eta okerra da.	Lortutako emaitzak koherenteak dira erabilitako metodologiarekin eta adierazitako helburuekin. Deskribapena eta osaera ere zuzenak dira, baina hobetu litezke.	Lortutako emaitzak koherenteak dira erabilitako metodologiarekin eta adierazitako helburuekin. Emaitzen deskribapena eta osaera ere egokiak dira.	
Gaitasun kritikoa eta integratzailea (% 16)	Bibliografia-iturriak (% 8)	Ez dira alderatu laneko edukiak (aurrekariak, helburuak, metodologiak, emaitzak) eta bibliografia-iturrietan eskuragarri daudenak. Iturri okerrak edo eguneratu gabeak kontsultatu dira.	Lanaren edukiak alderatu dira, nahiz eta kontsultatuko bibliografia ez den erabat egokia edo eguneratua.	Eskuragarri dagoen bibliografia zehatz-mehatz kontsultatu da. Egokia eta eguneratua da.	
	Integrazioa eta sintesia (% 8)	Lanean ez dira ageri graduan eskuratutako ezagutzak. Ez daude landuta ideia integratzaileak (ixteko ondorioak, etorkizuneko lanetarako hipotesiak) edo horien formulazioa okerra, nahasgarria eta gainerako memoriarekin alderatuta kontraesankorra da.	Graduan eskuratutako ezagutza gutxi batzuk baino ez dira ageri lanean. Ideia integratzaileak (ixteko ondorioak, etorkizuneko lanetarako hipotesiak) landuta daude, baina edukia hobetu daiteke.	Lanean argi eta garbi ageri dira graduan eskuratutako ezagutzak. Ideia integratzaileak (ixteko ondorioak, etorkizuneko lanetarako hipotesiak) modu egokian daude landuta.	



ZTF-FCT
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

GEOLOGIAKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA DEFENTSAREN EBALUAZIOA



Epaimahaiko kide guztiek osatu beharreko ebaluazio-txostena.

Zuzendariaren izena:	Zuzendarikidearen izena:	Enpresaren izena:		
Ikaslearen izena:				
Lanaren izenburua:				
Ebaluazio Batzordearen zenbakia:				
Deialdia:	<input type="checkbox"/> Otsaila	<input type="checkbox"/> Uztaila	<input type="checkbox"/> Iraila	<input type="checkbox"/> Ohiz kanpoko

Sinadura:

Eguna:

Gradu Amaierako Lanaren Ikasketa Gidaliburuaren arabera, Gradu Amaierako Lanaren (GRAL) defentsak azken notaren % 35eko balioa izango du.

Notak, hain zuzen, bi atal izango ditu: Azalpena (% 20) eta Eztabaida (% 15)



GEOLOGIAKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA DEFENTSAREN EBALUAZIOA

I. Azalpena (% 20)

		1-4	4-7	7-10	Nota
Edukiaren ezaguera	% 5	Ez du edukia behar bezala ezagutzen, kontzeptuak nahasten ditu eta aurkezpenean, idatzitakoa irakurri behar izaten du maiz.	Edukia nahiko ondo ezagutzen du. Kontzeptuak behar bezala erabiltzen ditu, eta aurkezpenean, oro har, ez du idatzitakoa irakurri behar izaten.	Edukia ederki ezagutzen du, eta baita erabiltzen dituen kontzeptuak ere. Aurkezpenean, ez du idatzitakoa irakurri beharrik.	
Antolamendua	% 5	Aurkezpenearen antolamendua eta atal bakoitzerako gordetako denbora-tartea ez da egokia.	Aurkezpena nahiko ondo antolatuta dago. Atalen segida eta atal bakoitzerako gordetako denbora onargarriak dira.	Aurkezpena oso ondo antolatuta dago. Atalen segida eta denbora-banaketa oso egokiak dira.	
Komunikazioa	% 5	Adierazpen-maila ez da oso akademikoa. Akats gramatikal eta sintaktikoak egiten ditu. Hizkuntza ez da arina (eten asko egiten ditu), ez daki tonua behar bezala modulatzeko eta nekez lortzen du entzuleen arreta. Entzuleekin harreman bisual eskasa dauka. Ez du lortzen entzuleen arreta puntu garrantzitsuetara bideratzea (diapositiban adierazi). Segurtasun-gabezia sumatzen zaio; ez da oso sinesgarria.	Adierazpen-maila zuzena dauka, nahiz eta ez den akademikoa. Sintaxia zein gramatika hobetu litezke. Hizkuntzaren arintasunari dagokionean, nahiko egokia da. Nahiko ondo modulatzeko tonua, entzuleen arreta lortzeko asmoz. Entzuleekin harreman bisual egokia dauka. Entzuleen arreta puntu garrantzitsuetara bideratzea lortzen du, baina ez beti.	Hizkuntza akademikoa darabil, eta baita gramatika eta sintaxi zuzenak ere. Hizkuntza oso arina da, eta ondo modulatzeko tonua. Ondorioz, une oro lortzen du entzuleen arreta. Karisma handiko hizlaria da; gogo beroa adierazten du. Segurtasuna sumatzen zaio. Eszenatokian behar bezala mugitzen da, eta ederki bideratzen du entzuleen arreta puntu garrantzitsuetara.	
Baliabide bisualak	% 5	Erabiltzen dituen baliabideak ez dute laguntzen aurkezpenean behar bezala jarraitzen.	Erabiltzen dituen baliabideak egokiak dira, eta ondo laguntzen dute aurkezpenean behar bezala jarraitzen.	Baliabideak bikain erabiltzen ditu. Entzuleen arreta lortzen duten baliabideak erabiltzen ditu. Erabiltzen dituen baliabideak asko laguntzen dute aurkezpenean behar bezala jarraitzen.	



GEOLOGIAKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA DEFENTSAREN EBALUAZIOA

II. Gradu Amaierako Lanari buruzko eztabaida (% 15)

		1-4	4-7	7-10	Nota
Erantzunen zuzentasuna	% 10	Ez die erantzun zuzena ematen ezta galdera samur-samurrei ere.	Galdera samurrei erantzun zuzena ematen die.	Galdera gehienei, nola samurrei hala zailagoi, erantzun zuzena ematen die.	
Erantzuteko erakusten duen segurtasuna eta jarrera	% 5	Ez du segurtasunik erakusten bere erantzunetan, eta bere jarrera ez da egokia.	Segurtasun pixka bat erakusten du bere erantzunetan, baita jasotako oharrei begirako interes apur bat ere.	Segurtasunez erantzuten du, eta jasotako oharrei begirako interesa erakusten du. Jasotako oharrekin lotutako argudio gehigarria osatzeko gai da (bere lanarekin lotuta).	